

Tailerra/ Taller/ Workshop

Adierazpen erradikalak

Serigrafia, praktika artistikoa, DIY kultura, feminismoak eta lan kolektiboa.

2008

Martxoak 31-apirilak 11/ 31 de marzo-11 de abril/ May 31-April 11

2008

Koordinazioa/ Coordinación/ Coordination:

Azucena Vieites

Koordinazio teknikoa/ Coordinación técnica/ Technical coordination:

Nerea Lopez

Elkarlana/ Colaboración/ Collaboration:

Allende Arnaiz

Gonbidatua/ Invitado/ Guest:

Jon Mikel Euba

Ekoizpena/ Producción/ Production:

Arteleku-Gipuzkoako Foru Aldundia

Ekoizpen exekutiboa/ Producción ejecutiva/ Executive production:

MDK

Arteleku. Martxoaren 31tik apirilaren 11 arte Adierazpen erradikalak

Serigrafia eta praktika artistikorako tailerra

Koordinazioa/ Coordinación/ Coordination:

Azucena Vieites

Koordinazio tekniko/ Coordinación técnica/ Technical coordination:

Nerea Lopez

Praktika artistikoak materializazio edo gauzatzeko teknika jakin batekin du zerikusia, baita objektua ukatzeko edo zalantzan jartzeko parametroetatik lanean ari garenean ere: Zergatik, bada, teknika hau eta ez beste bat? Zer dakar berekin horrela eta ez beste era batean egiteak?

Irudiak bere materialtasuna (nola dauden eginda, zein sentimen esperientzia dugun horiekiko) kontuan harturik eraikitzen direlako kontzientzia, irudi hauek "gorpuzten" diren prozedurei buruzko ikasketa batetik igarotzen da. Tailerraren helburua ez da hainbeste prozesu bat serigrafiaren bidez amaitzea izango, baizik eta prozesuari berari hasiera eman eta hartzen dituen norabideak ikustea.

Lana egiteko unean bi iturri izango ditugu, esperimentazioa eta gauzak egiteko moduei buruzko gogoeta. Izan ere, hauek serigrafia, DIY (*do it yourself*) kultura, feminismoak eta lan kolektiboa gure ingurua ezagutzeko modutzat hartzen dituzte, edo, beste modu batez esanda, hainbat zentzu-geruza elkarrekin egotea ahalbidetzen duten hurbilketen bidez gaur-gaurko ikusizko kultura irudikatzen tokizat.

Tailerra serigrafiako lehen pausoak egiteko saio batzuez hasiko da. Honen paraleloan, pieza edo bideo-lan batzuk erakutsiko dira, erreferentzia interesgarriak izan daitezke eta; eta Jon Mikel Euba artistaren partaidetza ere izango dugu. Kolektibo hitzaren esanahia, batzuetan konbentzio huts batera mugatuta geratzen da, zabaldu egingo da. Osterantzean, serigrafiaren erabileran bertan inplizitu ageri den hainbat alderdi garatuko da, hala nola: originala, kopia, obra bakarra, seriatua edo kopiagarria. Partaideek abian jarriko dute, halaber, prozesu propio bat.

Proposamena irudien gorpuztasunari buruzko kontzientzia bati lotuko zaio; kontua ez da izango irudien interpretatze prozesu bat dokumentatzea -dokumentu nozioak izaera birtuala bereganatzen du-, baizik eta hondar ideiak -emaitza organiko eta doilor gisa, asimila ezin gisa harturiko hondarrari buruzko ideiak- batzea.

Tailer hau serigrafiaren bidezko lan prozesu batez esperimentatu nahi duten pertsona guztiei zuzenduta dago.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, goiz eta arratsaldean.

Toki kopurua: 10 pertsona gehienez.

Prezioa: 78,13 €

IZEN EMATEA

Izena emateko buletinarekin batera gutun bat aurkeztuko da, honetan azaldu behar du baitira tailerrean parte hartu nahi izateko arrazoiak, curriculum batez eta obra pertsonalaren irudiez gain. Izena emateko epea: **2008ko martxoak 14**.

Onartuak aukeratzeko lana tailerrako arduradunek egingo dute, eta interesatuei **2008ko martxoaren 17an** emango zaie erabakiaren berri.

Bidaltzeko modua: posta elektronikoaz, postaz edo web orriaren bidez.

Ordainketa: onartuak izan ondoren, fax bidez bidali (+34 943 462256) kutzako 2101 0381 07 0001329473 kontu-zenbakian egindako ordainketaren frogagiria.

BIOGRAFIAK

Allende Arnaiz. Oiartzun, 1974. Artista eta serigrafoa. Diseinu Grafikoko goimailako teknikaria da. Aurre-inpresio grafikoaren prozesuetan egiten du lan, serigrafian bereziki. Gaur egun Artelekuren serigrafia lantegiarekiko elkarlanean ari da, serigrafiari aplikatutako aurre-inpresio digitalaren atalean. Serigrafiaren barnean egiten duen arte-lanak irudi fotografikoa du oinarritzat, eta hainbat euskarri erabiltzen ditu irudi sor edo estalia materia gisa irudikatu ahal izatearren.

Jon Mikel Euba. Bilbo, 1967. Artista. Argazkia, bideoa eta prozesu digitalak erabiltzen ditu bere obraren ohiko euskarri gisa, pintura edota instalazioen aukera baztertzeko. Bere obra hainbat bildumatan jasota dago, besteak beste, FRAC Poitou-Charentes (Frantzia), Kultura Ministerioa (Madril), MUSAC (Gaztela-Leon); MACBA (Bartzelona) MUDAM (Luxenburgo), Artium, Caja Madrid eta Altadisekoetan. Venezia, Istanbul eta Koreako bienaletan parte hartu du.

Nerea López. Tolosa, 1980. Artista eta serigrafoa. Arte Ederretan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Arte Grafikoetan espezializatua. Hainbat erakusketatan hartu du parte, areto, galeria eta arte ferietan. Obra gehienetan serigrafia ageri da, batzuetan pinturarekin edo argazkiarekin konbinatuta. Hainbat artistarekin elkarlanean aritu da, eta baita zenbaitentzat obra produzitu ere. Gaur egun Artelekuko serigrafia lantegiaren koordinazioaren ardura du.

Azucena Vieites. Hernani, 1967. Madrilen bizi eta lan egiten du. Artista. Arte Ederretan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. Bere lehen lanetatik marrazkia erabili du, berezko esperimentazio-eremu gisa. Hainbat erakusketaren parte izan da, galeria eta museoetan, eta bere marrazkien bidez argitalpen askotan lagundu du. Artearen eta feminismoaren arteko Erreakzioa-Reacción proiektuaren fundatzaile-kidea 1994an.

Izena
Abizenak
NA
Helbidea
Herria
Posta kodea
Telefonoa – Faxe
Posta elektronikoa
Jaiotze data
Lekua
Lanbidea
Ikastegia edo lantegia
